



MINISTERIO
DEL INTERIOR



ENPRESENTZAKO ALDI BATERAKO BAIMENAK (PLAKA GORRIAK)

Ibilgailuarekin erlazionaturiko enpresa edo erakundeen erabilerarako baimenak dira: fabrikatzaileak, bere legezko ordezkariak, karrozariak, inportatzaileak, saltzaile edo banatzaileak, hala nola laborategi ofizialak.

GARRANTZITSUA: Edozein buruzagitzatan izapidea egin baino lehen, aurretiko zita eskatu behar duzu.

BALDINTZA OROKORRAK

- **Eskaera** inprimaki ofizialean. (www.dgt.es-en inprimaki eskuragarria)
- **Tasa** 20,20 €-ko zenbatekoa. (Ez dago eskudirutan ordaintzerik)
- **Interesdunaren identifikazioa:**
 - Pertsona fisikoak: agiri ofiziala, titularraren identitatea eta helbidea egiaztatzen dituen (NAN, gida-baimena espainiarra, egoitza-txartela, pasaporte gehi Atzeritarren Identifikazio Zenbakia).
 - Pertsona juridikoak: elkartearen identifikazio fiskalaren txartela eta ordezkapena egiaztatzea eta sinatzen duenaren identitatea (*Eredu eskuragarria www.dgt.es-en*)
- Jarduera honetarako establezimendu irekierarako udal-lizentzia izatearen frogagiria eta fotokopia.
- Kobrantzarako ezarritako Ekonomi Jardueren gaineko Zergaren (EJZ) azken ordainagiria eta fotokopia edo jarduera mota hau egiten delako egiaztagiria ofiziala, zerga honen subjektu pasiboa ez bada. **Laborategi Ofizialen** kasuan eskudun erakundeak luzaturiko bere jardueraren baimenaren egiaztagiria aurkeztuko da.

ZIRKULAZIO BULETINEN TXEKETEGI-LIBURUEN AZTERKETA

- Eskaera inprimaki ofizialean. (www.dgt.es-en eskuragarria)
- Tasa 8,50 €-ko zenbatekoagatik. (Ez dago eskudirutan ordaintzerik)

FROGA EDO EZOHIKO IKERKETA SAIAKERETARAKO BAIMENAK

Aurreko baldintzetaz gain beharrezkoa da:

- Enpresako aldi baterako aurretiko baimena duela egiaztatzea
- Eskaeraren behararen frogagiria aurkeztu.

Baimen hauek eskatzen eta izapidetzen dira Trafikoko Zuzendaritza Nagusiaren Mugikortasunaren Kudeaketako Zuzendariordetza Nagusian.

OHARRA:

- *Izapidea titularrak aurkezten ez badu, honek sinatutako baimena eta bere NANA beharrezkoa izango dira, non doaneko izaera adieraziko den (www.dgt.es-n eredu eskuragarria).*
- **Erroldatze-helbide eta EJGZko** frogagiriaren aurkeztu ordez, Trafikoko Zuzendaritza Nagusiak informazio hori telematikoki ziurtatzeko berariazko baimena eman daiteke. Horretarako, izapide-eskabideko formularioan dagokion laukitxoak markatu, edo egoitza elektronikoa edo Trafikoko Buruzagitzetan eskuragarri dagoen berariazko baimen-formularioa bete behar duzu. Informazio onargarria jasotzen ez bada, egin daitekeen konponketak agiriak aurkeztea behar izango du.
- Goian eskatutako datuen batek frogagiri fede-emailea ez badu, dokumentazio gehigarria eska daiteke.